

BERRIGARA


26 zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, ekainak 21



Azanzabal & Garitano
bi talde, bi lagun



Gremio-Taldeak:
Iturkin eta
Hojalateroen kasua.



Obra et labora
krodegia eta pisznak
oraindik bida



Aitor Zabaleta:
susto galanta

200.000

KADETT

**PZTA. RAINOKO
BEHERAPENA, INOLAKO BALDITZARIK GABE**

Hil amaiera arte. Bertaio bakoitzerako deskontua.



**TALLERES
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEN:
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako

Kontzesionari Ofizialak

OPEL 

Hobeak esperientziaz




BERGARAKO ITURKIN

ETA HOJALATEROEN TALDEA

- ✓ Luis M. Larrañaga Tfnoa: 76 29 71
- ✓ Iturkintz-Berri Tfnoa: 76 28 04
- ✓ Urbieta Tfnoa: 76 14 50
- ✓ Arestegi-Tola Tfnoa: 76 54 17
- ✓ Jose Angel Zabalo Tfnoa: 76 64 73
- ✓ Larrañaga-Eguren Tfnoa: 76 11 88
- ✓ Araneta Tfnoa: 76 34 01
- ✓ Laskurain Tfnoa: 76 24 89
- ✓ Medina Tfnoa: 76 28 07
- ✓ Wangeneberg Tfnoa: 76 22 25

- ✓ Ordezkarari Tfnoa: 76 64 19



- ✓ Gasoleoa
- ✓ Gasa
- ✓ Berokuntza
- ✓ Ur beroa eta hotza
- ✓ Suteak
- ✓ Gas eta berokuntza
proiektuak
- ✓ Uren tratamenduak

Beti zuen zerbitzura

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezar

Erredakzioa:

Eneko Azkarate. Eduardo Mendibil

Maketazioa:

Edume Arenaza

Publizitatea eta herpidetak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontsultua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elxepuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezar, Josune Iñarra eta Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa Bikuria

Argazki laborategia: A. Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares, Txomin Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



21 OSTIRALA

- **Zinea:** "La Casa Rusia", 10.30etan.
- **Erakusketak:**
- Nahikarin Luis Jose Yanizen pintura erakusketa.
- Kultur etxean argazkilari gazteen erakusketa argazki erakusketa.
- **Kontzertuak:**
- Bergaran, Gaztetxean: *Soziedad Alkoholika* 10etan.
- Eibarren, Untzaga plazan: *Su Ta Gar* 11etan.
- **Pilota partiduak:**
- Osintxun, gaueko 7.30etan, Infantilak:
- Zabaleta-Muruamendiaraz/Muguruza-Calles.**
- Seniorrak:** Oregi II- Aldai/Elgoibarko bikotearen kontra.
- **Gimnasia erritmikoa:** Bergarako pilota lekuan arratsaldeko 7etan
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho (Oxirondo Enparantzan) Gauez: Morales (Arrasaten)

22 LARUNBATA

- **Zinea:** "La casa Rusia" 10.30etan,
- **Pilota partiduak:** Temporada bukatu da.
- **Kontzertuak:**
- Arrasaten Gaztetxean *E.H.Sukarra eta Zakarrak* taldea k gaueko 10etan.
- **Dantzaldia:** Espaloian gaueko 11etan *I-baiak* taldearekin dantzaldia.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Puy (Barrenkalen) Gauez: Azcoaga (Arrasaten)

23 IGANDEA

- **Zinea:** "La casa Rusia", 5, 7.30etan eta 10.30etan.
- **Kontzertuak:**
- Eibarren txosnetan *E.H. Sakarra eta Slips Revenge.*
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho (Oxirondo Enparantzan) Gauez: Azcoaga (Arrasaten)

24 ASTELEHENA

- **Zinea:** "La casa Rusia" 7.15 etan.
- **Eskalada (Ostiralera arte):**
- Diapositibak 8,30etan UNEDen.
- Eskalada ikastaroa 5etatik 7etara Kiroldegian.
- **Erakusketak:** Argazki erakusketa eta eskaladako materialen era-

kusketa Kultur Etxean.
• **Goardiako farmazia:** Egunez: Puy (Barrenkalen) Gauez: Español (Arrasaten)

25 ASTEARTEA

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Guallar (San Antonion) Gauez: Corcuera (Arrasaten)

26 ASTEAZKENA


• **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella (Matxiategin) Gauez: Irizar (Arrasaten)

27 OSTEGUNA

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho (Oxirondo Enparantzan) Gauez: Ruiz (Arrasaten)

Aukeran...

- Eskalada astea: Erakusketak, Hitzaldiak.
- San Juan jaiak.




LONBIDE

OINETAKOAK

BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99



**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

ONENA

TINDATEGIA

BARRENKALE 29

BERGARA

KIZKUR



Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Okerreko begitik hartu bide du Bergarako talde jakin batek Aranzadi Ikastolak bere ikasleei batxilergoa eskeintzeko urratu duen bidea. ez dira konformatu ikastolako 8. mailako gurasoak bilera batetan zentru hau gutxiesteko biltzearekin, baizik eta herritik kanpo ere zabaldu dute euren telefono sarea Gasteizaino (Hezkuntza Sailera) iritsiaz. Bukatzeko, joan den asteko BERRIGARAN planifikazioari buruzko txosten bat argitaratu dute.

Ikastolak ez du eztabaida honetan parte hartu nahi izan, baina nik bederen, hainbeste erasori erantzuteko sasoia iritsia dela uste dut. Hasteko, esan beharra daukat beste guztiei onartzen dizkieten eskubideak gure ikastolari soilik ukatzen dizkietela "planifikazio" hitz sakratuaren izenean. Gutxi axola du "Elementalak" Batxilergoa jartzen badu edo "Institutoak" REM eman nahi badu. Ondo dago ere, Mariaren Lagundiak I.E.E. edo L.H.a ematen badu. Baina Aranzadik? Argi, horiek geld! Planifikazioak zerbaitetarako dira.

Idazkiari loturik, gaitetik pasa beharko ditugu "Euskaldunak Ikastolan eta kastellanoak institutoan?" bezalako esaldi inozoak, Aranzadi Ikastolak ederki erakutsi baitu azkenengo 20 urtetan integrazioaren alde jokatu duen papera.

Ez dut beste esaldi bat pasatzen utzi nahi isladatzen duen eredia erabat zaharkitua aurkitzen dudalako: "Institutoa gai delako Batxilergoko eskaera gutzia betetzeko". Beste guztiak soberan omen daude. Baita hiritarren eskubideak ere.

Eman dezagun beste adibide bat erabiltzearen, zergak ordaintzen ditugun hiritarrak gabela eta horren truke, osasun, hezkuntza, errepide, prentsa, komunikabide e.a. luze bat jasotzeko eskubidea dugula eta ez hala nolakoa. Gaur ez digu axola medikua funtzionarioa den edo zenbat diren "herriko eskaera gutzia betetzeko" behar ditugunak. Gaur egun beste helburu batzuk ditu hiritarrak eta honi zor zaion begiruneagatik, nire publikotasunaren kontzeptua titularrari baino, hiritar guztiei eskeinitako kontrol publikopeko zerbitzu on bati lotuago dago. Garai bateko Campsa badijoa S.E.S.B.eko ekonomiaren egitura joan den bezala.

Ez dut beraz edozein publikotasun onartzen eta eskeintzen zaigu eredu zaharkitu, estatiko eta monopolizatzailea bada, zuek eta ni ez gara gurdi berdinerigiko ez orain ez aurrerantzean. Bitartean, Aranzadi Ikastola erasotzen denbora eman gabe, erabil itzazue zuen indarrak beste linea batetan, eta argitu ezazue mesedez nor den Batxilergo Institutoa (irakasle, zuzendari, guraso, ikasle...)



Bukatzeko, eskerrak gudan zuen konfidantza ezarri duzuen herritar guztiei, eta jakin ezazu ireki dugun bide hortatik jarraituko dugula, gure eskeintza hobetuz eta gaur arteko kalitate maila gaintzeko lan eginaz.

Iñazio Arregi

Aranzadi Ikastolako Zuzendari Jerenteak

Tiira ba!

Josu Okina





Mendia berez garbia

"Mendia berez garbia" kanpainaren barruan, bergarako mendizaleek Gorla ingurua garbituko dute bihar. Kanpaina hau Gipuzkoako Mendi Federakundeak antolatu du eta kanpaina koordinatu duen ingurugiro ordezkariak mendizaletasuna eta natura ekarlotu nahi izan ditu. Egitasmoaren helburuak bi ardatz nagusi ditu: mendian sortzen den zaborra biltzea batetik eta salaketa publikoak egitea bestetik. Bihar izango den garbiketa horretan Pol-Pol eta Gorla Alpino mendizale taldeek hartuko dute parte eta irteera goizeko 8.30etan herriko Plazan izango da.



San Juan gaua

Igande honetan San Juan auzoak bere jaiak ospatuko du. Eguediko.12etan San Juango elizan meza izango da; ondoren, bertako elkarteak pintxoak eta edaria eskeiniko zaie bertara hurbitzen direnei. Trikitirilariak ere izango dira eta, urtero bezala, gau majiko horretan auzoko baserri guztietan fogatak ez dira faltako. San Juan auzoan bezala kalean ere zenbait sumeta egotea espero da. Euskal Herrian Euskaraz taldeak Santa Marina inguruan euskararen kotra dihoazten zenbait objektu erreko ditu.



Haurren Euskal Jaia

Aranzadi eta Mariaren Lagundia Ikastolen kultur batzordeak antolatuta, igande honetan ospatuko da gure herrian XVIII. Haurren Euskal Jaia. Egun guztian zehar ekitaldiak izango dira herriko kaleetan; goizeko 9 t'erdietan ongi etorria emango zaie bai Arrasate, Durango, Zumaia, Goizueta edota Gasteiztik etorriko diren hamar dantza taldeei; 11 t'erdietan kalejira Plazan bukatu ondoren, bertsolariak eta alkate txikiari ongi etorria; geroxeago dantza talde guztiek beraien dantzak eskainiko dituzte kaleetan zehar. Arratsaldean, aipagarri 5etan izango den dantzen alardea, zezen txikiak eta poniak. 7etan jaialdiari bukaera emango zaio, eta egun guztian zehar txarangak, trikitilariak eta dultzaineroak kaleak alaitzeaz arduratuko dira.

Intsumisoak

Bergarako BOTA talde antimilitaristak autobusa antolatu du bihar Donostian egingo den manifestaziorako. Euskal intsumisoen aurkako gerra kontzeiluak salatzeke egingo den manifestazio hau arratsaldeko zazpi t'erdietan Bulebarrean hasiko da.

Margolariak

Mikel Araiztegi bergararrak 3. poztua lortu zuen igandean Arrasaten izandako margolari txapelketan. Ion Andoni Urisabalen lanak akhezita merezi izan zuen epaimahikoen iritziz. Bestalde, truke gisa, gaur arte Bergarako ia margolari guztien lanak Eromon ikusgai egon dira.

HALTZARI
Fagor altzarien
banatzailea.
Sukalderako altzariak
BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA

ERREKI
Erretegia
Berezitasunak :
Bixigua eta txuletak.
Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

KONDE
PANADEROKUA
Burdiñate 1
BERGARA



Kilometroak 91 martxan

Joan zen ostegunean Kilometroak 91ko Batzorde Iraunkorrek urriaren 6an izango den jai horren inguruan emandako urratsen berri eman nahi izan zion Bergarako herriari Udaletxeko Pleno Aretoan. Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolek egun horretan Bergarara hurbiltzen diren guztiei jai eder bat eskeintzeko asmoa azaldu zuten. Horretarako, antolatzaileek ezinbestekotzat jo dute herritar guztien laguntza eta, berek egindako lehen aurikuspen baten arabera, 1.500-2.000 boluntario ingururen lana izango da beharrezko urriaren 6an.


Zentzu horretan, joan den ostegunean izandako aurkezpenean Batzorde Iraunkorrekoez herriko zenbait taldek eta Udalak orain artean emandako laguntza eskertu nahi izan zuten. Aportazio horien artean aipagarria da herriko musika taldeek eskeini dutena, abesti bana grabatu bait dute Txirula-Mirula estudiokoen laguntzaz. Aipamen berezia merezi izan du azken etxe horrek hainbat egunetan lan egin bait du Bergaran inolako dirurik kobratu gabe. Aipatutako kaseta grabatzen Aranzadi Ikastolako haurrak, Angiolillo, Aranzadi Ikastolako 3. mailako taldea, Musika Eskolako Soka Boskotea, Akordeoi Boskotea, Trikitrixa eta Abesbatza, Alai taldea, Bergarako Orfeoia, Txistulari taldea, Urretxindorrek, Aritzeta eta Umore Onak, aritu dira eta guztira 13 abesti izango dituen lan polita burutu dute. Ibilbidea ere zehaztua dago jadanik; nahiko aldapatsua baina gure herriaren ikuspegi oso polita eman ahal izango duena. Irteera Seminarioko patioan izango da; handik, egun horretan izango ditugun milaka eta milaka bisitariak San Martzialera joko dute; jarraian Zurragak Gurutzeraino eta Agarreko Garaixera jeitsi eta azkenik, Labegaraietatik berriz ere herri erdirako bidea hartuko dute.

□ Bizi Alternatiboa

Bizi Alternatiboaren V. edizioaren egitaraua zehazten joateko asmoz, bilera bat izango da astelehenean, zazpietan, Kultur Etxean hala oporretatik bueltatzerakoan antolaketarekin hasteko. Drogomenpekotasunaren Prebentziorako Komisioak dei egiten die kolektiboek bileran parte har dezaten.

□ Klaseak udan

Institutoko gurasoen elkarteak uda ikastaroak antolatu ditu asgnaturaren bat errekuperatu behar duten ikasleentzat. Klaseak uztailen eta abuztuaren azkenengo astean emango dira goizez. Izena emateko epea Institutuan bertan hil honen 28ra arte egongo da zabalik.



Oraingoz igerilekurik gabe

Aurreko baten igerilekuak San Juanetarako zabalduko zirela aurreratu bagenizuen ere, badirudi oraindik bizpahiru aste gehiago itxaron beharko dugula kanpoko piszinak zabaldu arte. Eusko Jaurlaritzak Osakidetzaren bitartez inposatutako neurriak betetzeko beharrezkoak diren obrak oraindik ez dira burutu, eta San Ferminak arte ez dira bukatuko ziurrenik. Hasieran 21 milioi pezetatan finkatu bazen obra hoiengatik aurrekontua, orain berriztapen guztiak 108 milioi pezetaraino heltzea espero da. Bestalde, kiroldegia ere oraindik obretan dugu. Aste honetan, Selektibitateko azterketak zirela eta, ezin izan dute pista aldatzeko obrekin jarraitu eta beraz, datorren astean ere itxita egongo da kiroldegia. Azkenik, Udalak hastear dagoen legealdi honetan burutzea espero duen aspaldiko bi proiektu: batetik, Udaletxea zertxobait handitu ondoren, Udaletxea eta Olaso Torrearen artean eskilarak eta plazoletatxo baten urbanizazioari ekingo zaio. Bestetik, Galarreta zapatadenda egon zen lekuan beste plazoleta bat joango litzateke, bertako fatxada atzera bota eta dagoen bezala mantenduz.



GAZTEKY S. A.

BURDINDEGIA

MINTEGI 1

Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50

BERGARA



Gremio-Taldeak direla eta...

Aspalditik ezagutzen ditugu gremio-taldeak.

Bergaran ere tabernariak, dendariak, arotzek... etab. luze batek euren buruak babesteko elkarrekin sortu ohi dituzte. Talde hauek euren etekinak aurrera ateratzeko bidea izanik, kalteren bat somatzen dutenean, berehala entzunarazten dute beraien ahotsa.

Iturkin eta hojalateroen taldea esaterako, joan den urtean gasifikazioa zela eta kaleratutako idazki baten bitartez ezagutu genuen. Aurten, berriz, edozein lanetarako ere kanpotarrak bezain kualifikatuak direla erakutsi nahi izan diote beren bezeroei. Gremio honek, urte gutxitan, izugarritzko aldaketa teknikoak jasan behar

izan ditu. Aspaldiko hojalateroek iturrietako ur hotza segurtatzeko lan egiten zuten bitartean, gaur egun lanbide honetan aritzen den jendea kalentadoreak, komunak, gasoleoa, berogailuak edota gasa jartzeko ere kualifikatuta dago. Honek, jakina, kostu inportantea suposatu die iturkin eta hojalateroei: Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, Donostian ikastaro batzuk egin, eta kasu batzutan oso traumatikoa izan den erreziklaia ere pasa behar izan dute azkeneko urteetan. Orain, egindako esfortzua ez zaiela errekonozitzen salatzen dute.

Gasasartzea zela medio kanpotik langile asko etorri ziren Bergaran lan egitera eta Bergarako iturkin eta hojalateroek kanpotar horiek beste badiresala aldarrikatzen dute. Jose Angel Zabalo gremio honen ordezkariaren hitzetan, "gasifikazioa izan zen el maná esaten dena.



Eusko Jaurlaritzak Naturgas-en bitartez gasaren ramifikazioak bota zituen, baina ondoren egin beharreko gas instalaketan, hau da, gasa etxeetara bideratzean, kanpotar asko izan ziren lanean, zenbait kasutan inolako kualifikaziorik gabe". Hori dela ta, orain gutxi kaleratutako beste idazki baten bitartez, Bergarako iturkin eta hojalateroek bere bezeriari jakinarazi nahi izan diote "teknikoki kapazitutako profesional espezializatu bezala kalifikatzeko behar diren titulazio eta agiri guztien jabe eta gasa instalatzeko ere gauza direla".

Era berean, talde honek bere profesioan ematen den intrusismoa salatu nahi izan du. Kolektibo honen eritziz, Udaletxeak langabetuentzat antolatzen dituen ikastaroek ere intrusismo hori bultzatu baino ez dute egiten: "Kurtsillo horietan ez da jendea behar bezala prestatzen eta oso kualifikazio baxuko jendea irtetzen da. Irakasleek ere gehienetan ez dute klasea emateko behar den maila minimoa eta izugarritzko txapuzak egiten dituzte. Ganorazko Eskola bat falta da eta, zentzu horretan Frantziarekin konparatuz oso atzeratuta gaude".

ayastury

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 7651 84 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA
URDAITEGIA

TXAHAL, IDI, TXERRI
BILDOTS, UNTXI
BASERRIKO OILASKOAK

MATXIATEGI Tfnoa: 76 15 09 BERGARA



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoan espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

Garitano & Aranzabal

Bergarako harrobiaren ordezkariak

Asier Garitano eta Agustin Aranzabal bergarar futbolarien ordezkari aipagarrienak ditugu. Lehenengoa hamar urteko mutil-koxkorra zela eraman zuten Lezamako zelaietara eta beste hainbeste egin ditu bertan, Bilbao Athleticera heldu den arte. Gazteluren semea, berriz, orain dela lau urte deitu zuten Zubietatik eta Realeko jubeniletan aritu ondoren, datorren denboraldian filialean jokatu du, sei urtetako kontratua sinatu berri duelarik. Batek 21 urte, besteak 18; elkarren kontra sekula jokatu ez badute ere, guk aurrez-aurre jarri ditugu. Hona hemen biekin izandako solasaldiaren berri.

Bi aste dira lehen mailako futbol liga txapelketa amaitu zela. Euskal taldeek, Osasunak ezik, joku kaxkarra erakutsi dute denboraldi osoan. Realak eta Athleticen liga hasieran jarritako helburuak ez dute urrunetik ere bete. Batak zein besteak inoiz baino apostu gogorragoa egin ondoren, taularen erdikaldean sailkatzea besterik ez du lortu.

Athleticaren filiala, Bilbao Athletic, talde nagusiaren antzera aritu da aurten: "azken partidura arte jeisteko arriskuan egon gara. Orokorrean denboraldi txarra burutu dugu. Nik neuk ere, ez dut nahi beste jokatu. Dena den iaz lortutako gol kopuru bera sartun dut aurten", azaldu digu Asier Garitanok.

Agustin Aranzabali, aldiz, gauzak ondo joan zaizkio aurten: "txapelketako onenak izan gara eta ni neu ere pozik

nago erakutsitako jokoarekin. Aurten gainera Realarekin sei urtetako kontratua sinatu dut".


Asier eta Agustin, Agustin eta Asier; txikitatik baloiari ostikoka. Bat Bilbon, bestea Donostian, Athleticera bat, Realera bestea, bide ezberdinak biak ere. Asier 10 urterekin Lekeition oporretan zegoela, Athleticen begiraleek futboleant jolasten ikusi eta Lezamara eraman zuten. Harrezkero Bilbon aritu da. Ez du inoiz jokatu C.D. Bergaran.

Agustinen kasua ezberdina da. Bergarako alebin eta infantil taldeetan ibili ondoren Realetik deitu zioten eta han eman ditu azken hiru urteak: "jendeak uste du nire aita Gaztelu denez, ateak zabalik aurkitu ditudala eta erraza izan zaidala Realean jokatzeko, baina nik neure ba-

liao demonstratu behar izan dut", argi eta garbi utzi nahi izan du Agustinek.

Asierren eta Agustinen ametsa: egunen batetan Realeko eta Athleticen talde nagusietan jokatzeko. Errealitate bihurtuko balitz, bi bergarar bi talde euskaldunetan aurrez-aurre jokatzen duten lehenengo aldia izango litzateke. Agustinen eritziz, "inoiz gertatu ez dena ikusteko aukera izango genuke. Gainera Asier aurrelaria da eta nik, berriz, atzekaldean jokatzen dut. Behar bada nik markatu beharko nuke, gertutik zaindu gainera, bestela..."

Asierrek beste bi urtetarako kontratua du bilbotarrekin. Agustinek, bestalde, sei urtetarako fitxatu berri du. Realeko jokalariei gehienei bezalaxe, Gazteluren semeari ere 500 milioitako



klausula jarri diote. Beste ekiporen batek eraman nahiko balu dirutza hori ordaindu beharko lioke Realari. Agustinek ez dio uko egiten beste talderen batean jokatzeari: "nahiago dut Realean jokatu, baina Athleticera edo beste edozein taldetara ere gustora asko joango nintzateke. Billabonako ondo egin zuela uste dut. 500 milioitako klausula izan eta zuk zeuk lau txakur haundi jasotzea ez dago ondo. Bertakoei merezitakoa ordaindu behar zaiela uste dut".

Asierrek ere gustora jokatuko luke Realean: "Athleticen ezin bada, Realean. Lehen mailako edozein taldetan, Real Madriden jokatzea zoragarria izango litzateke".

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23

Tfnoa: 76 18 49

BOLINTXO
KIROLA EGITEKO
BEHAR DEN
GUZTIA.

IBARGARAI 10,
Tfnoa: 76 38 32
BERGARA



beste protestatzen".

Edozein kiroletan destakatea ez da erraza. Gutxi batzuk dira lortzen dutenak. Badira ordea, bidean aurkitutako traba guztiak gainditu ondoren goi mailara heldu direnean, ospeari, diruari..., guzti horiei uko egin diotenak. Aurtengo denboraldi hasieran Realak utzi zuen jokalaria gazte baten izena datorrigu burura: Alabarena hain zuzen ere. Asier Garitanoren eritziz "Alabaren kasuak argi utzi du futbola ez dela jendeak uste duen bezain erraza eta polita. Egunero entrenatu, aste bukaeretan jokatu, lagunak ez ikusi, gauean goiz oheratu... futbolak sakrifizio handia eskatzen du. Alaba oso ausarta izan zen futbola uztean baina, bestalde, konprenigarria da donostiarraren erabakia".

Futbolaren inguruan luze jardun genuen etorkizuna beren eskuetan duten bi bergarar hauekin, baita Bergarako futbol talde nagusiak egin duen denboraldi kaxkarrari buruz ere. Bai Asier, baita Agustin ere aspaldian ez dira Agorrosinera hurbildu. Argi daukate, dena den, Bergarak gutxienez Prefereente mailan jokatu beharko lukeela.

Amaitzeko galdera bat jarri genien mahai gainean. Datorren urtean Realak edo Athletic, nor aurretik? Erantzuna diplomatikoa: "hiru uskaldunak UEFArako sailkatzea egokiena".

Aurten, Realak jokalaria atzerritarrekin, eta inoiz baino aurrekontu haundiagoaz ekin dio denboraldiari. A-postu gogorra egin ondoren, azken hogeitaz gogoratzen den sailkapenik kaxkarrena lortu du: "Atzerritarren kontra nago. Nahiago nuke bertako jokalariekin jokatu balitz. Talde onik ez dagoela? pazientzia eduki eta hobe irten arte itxoin", dio Agustinek.

San Mamesen edo Atoxtan. Non zalego hobe? Galdera honi argi erantzun dio Agustinek: "Athleticekoa hobe. Atoxtan partidu ona egon ezean, zaletuak berehala hasten dira oihuka. Oso gogorak dira Realarekin. Bilbotarrek zalego hobe dutela uste dut: Athleticak gaziki jokatu arren ez du hain-

Izkutuko kontuak



Agustin Aranzabal

18 urte. 1973ko martxoaren 15ean jaioa. Placis. 4 urte Realean. Ezkerreko hegalean atzelari jokatzen du.

Realeko jokalaririk onena: Mikel Lasa.

- Estatuko ligan arl den atzerritar onena: Stoichkov.
- Estatuko jokalaririk onena: Butragueño.
- Munduko jokalaririk onena: Maradona.
- Boronat ala Exposito: Exposito.
- Izan duzun entrenadorerik onena: Carmelo Amas.
- Okela ala arraina: okela.
- Gehlen gustatzen zailun bazkaria: arroza.
- Mendia edo hondartza: mendia.
- Donostia ala Bergara: Donostia.
- Bergarako txokorik pollitena: Bideberri.
- Oporrak pasatzeko toki bat: Venecia.
- Gustokoen duzun musika taldea: Loquillo y Los Trogloditas.
- Pelikula bat: El Sargento de hierro.
- Pertsonala historiko bat: Juan Sebastián Elkano.



Asier Garitano

21 urte. 1969ko abenduaren 6an jaioa. Saglario. 11 urte Athleticen. Aurrekalde eta erdikaldean jokatzen du.

Athleticeko jokalaririk onena: Rafa Alkorta.

- Estatuko ligan arl den atzerritar onena: Schuster.
- Estatuko jokalaririk onena: Butragueño.
- Munduko jokalaririk onena: Maradona.
- Clemente ala Sáez: Sáez.
- Izan duzun entrenadorerik onena: Niko Estefano.
- Okela edo arraina: biak.
- Gehlen gustatzen zailun bazkaria: txuleta.
- Mendia edo hondartza: hondartza.
- Bilbo ala Bergara: Bergara.
- Bergarako txokorik pollitena: Angiozar.
- Oporrak pasatzeko toki bat: Kankun.
- Gustokoen duzun musika taldea: Bruce Springsteen.
- Pelikula bat: Agárralo como puedas.
- Pertsonala historiko bat: Napoleón.

Mujika
Janizidenda

BARRENKALE, 1 BERGARA
Tfnoa: 76 29 91

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
Kafea kremarekin
Irala z / g Tfnoa: 76 55 75

Santiveri ETXEA

GERTATUTAKO JANGAIK
ETA ERREGIMENEOAK
Zurradero 2, Tfnoa: 76 58 83
BERGARA

Asier Garitanori buruz...

Javi Belilla
kazetaria

"Asier Garitano sarri ikusi dut Bilbao Athleticekin San Mameseko berdegunean. Ez da azkarregia, bainan ezta geldoa ere. Abilidade haundiko jokalaria, gogor ematen dio baloiari eta bi hankak ondo asko erabiltzen ditu.

Futbola oso ondo ikusten du, oso inteligentea da. Horretan talde nagusian aritzen den Urrutiarekin konparatuko nuke. Bergararra Lekeitiokoa baino arriskutsuagoa da porteria aurrean. Asier bereziki baliozgarria da kontraerasoan jokatzeko, defentsa apurtzeko ez bait dator ondo: ez da haundiegia. Ez du bapateko erregaterik, bainan honek gauza onik badu: arerioak etzanda uzten ditu erregatea mugimenduan egiterakoan.

Orokorrean ezaugarri hauek aipatuko nituzke: jokalaria abila, inteligentea eta batere egoista izateak ditu bere alde. Aurka, berriz, fisikoki pixkat ahula dela. Dena den, e-torkizun haundiko jokalaria dela uste dut".



P. M. Goikoetxea
kazetaria

"Jokalaria teknikoki oso ona da Asier, bi hankak primeran erabiltzen ditu. Falta jaurtikeketan oso trebea da eta golak sartzeko erretasun haundia du gainera. Gazte mailan gol ugari sartu zituen, bainan Bilbao Athleticen dagoenetik ez dabil hain fin. Alde batetik ez duelako sarritan jokatu eta jokatu duenean ere, porteria aurrean hain zuhur ez delako ibili.

Fisiko aldetik arazo txiki batzuk dauzka. Ez da altuegia, baina gora egin dezake, o-raindik gaztea bait da.

Orokorrean, area barruan oso zuhurra eta arriskutsua dela esanda iteke. Talde nagusiko norbaitekin konparaketak egitekotan, Mendigurenekin antzekotasunak agian, baina ez larregi".




Agustin Aranzabali buruz...



Joxean Alkorta
kazetaria

"Agustin Aranzabal ez dut askotan jokatzeko ikusi. Iaz Realak antolatzen duen jubenil mailako Nazioarteko Futbol Txapelketako finalean, Atotxan, bere jokorekin disfrutatzeke aukera izan nuen eta kalitate haundiko jokalaria dela argi erakutsi zuen. Asko gustatu zitzaidan. Bere aitarekin, Gaztelurekin, konparatzen badugu hau askoz teknikoagoa da. Gaztelu indartsuagoa zen, *tototerreno* bat. Zelaiaren alde guztietan ibiltzen zen: aurrean zein erdian eta atzekaldean. Ez dut sekula ahaztuko Gazteluren suharratasuna. Hura zen indarra... Semeak beste hainbeste balu... Agustin gaztea da oraindik eta e-torkizunean gauza handiak egin ditzake".



Carmelo Amas
entrenadorea

"Gazteluren semea neure aginduetara izan dut jubentiletan. Beragan itxaropen haundia geneukan, eta ondo erantzun du, bai kirol mailan, baita pertsona moduan ere; ikasketak ere ondo daramatza. Teknika handiko mutila dugu jokalaria ezkerterik haur, eta fisikoki ere ondo dabil, altua da gainera. Asko hazi da azken boladan. Aita ezberdina zen: oso jokalaria indartsua. Semeak, ordea, teknika askoz hobea du eta indar aldetik gehiago irabazi dezake. Bide onetik doa eta lesio graberik izan ezean, e-torkizunari begira laister talde nagusian jokatzeko ikusiko dugula uste dut. Aita eta semea: Realean inoiz jokatu duen bigarren bergararra".



Jatetxea

AURREZ ESKATUTAKO
BAZKARI ETA AFARIAK

Angiozar Tfnoa: 76 21 21

ELKAR

Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak.

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16

BERGARA

Etorkizuna lantzen

Asier Garitano eta Agustin Aranzabal dira Bergarako fut bol kanteraren ordezkari aipagarrienak. Badira ordea, Realean zein Athleticen gazte mailetan beste hiru bergarar. Ander Berraondo Realean, eta Ibon Larrañaga eta Gotzon Urzelai Athleticen. Orrialde honetan aurkezten dizkizuegu.



Ibon Larrañaga

Bergarako institutuan ikasten ari den 16 urteko bergararrak hiru eman ditu Lezaman. C.D. Bergarako benjamin eta alebinetan jokatu ondoren, Athleticen fitxatu zuen 13 urte zituenean. Erdilari eta aurrelari modura eskumako hegaletik jokatzen du. Aurten 35 gol sartu ditu, taldeko bigarren goleatzaile onena gertatu delarik. Egunero abiatzen da Lezamako zelaletara entrenatzeko asmoz eta asteburuetan jokatzen ditu partiduetan.

Bere eritziz "Lezama eta Zubietan ezin daitezke konparatu. Bestalde Atotxa futbolina besterik ez da San Mamesen aldean. Athletic benetako kluba da".

Gehien gustatzen zaion jokalaritxuri-gorria, Alkorta.



Ander Berraondo

Agustin Aranzabalekin batera Realean jokatzen ari den bergarar bakarra dugu Ander Berraondo. 14 urte, iaz fitxatu zuen Realak eta aurten infantiletan jokatu du txuri-urdin bezala: "C.D. Bergaran nebilela Zubietako begiraleek deitu eta proba batzuk egin ondoren aukeratu ninduten", argitzen digu Anderrek. Astearte eta ostiraletan Arrasateko Atxabalpe futbol zelaian entrenatzen du, inguruko beste jokalaritxuri batzuekin batera, Patxi Agirrezabalagaren aginduetara. Asteburuetan, berriz, Urrietan jokatzen du.

Gorritzen postu berean, jokatzen du Anderrek. Gustokoen dituen futbolariak aipatzerakoan, berriz: Lasa, Gorritz eta Atkinson.



Gotzon Urzelai

Urtea egin du txuri-gorri jantzita Aranzadi Ikastolan ari den 11 urteko bergarar honek. Iaz Athleticen antolatzen duen txapelketara Lezamara joan eta onenen artean aukeratu zuten. Amaitu berri den denboraldian Athleticen alebinetan jokatu du: "Bergararik Lezamara joan ginen txapelketa bat jokatzerara. Han lau jokalaritxuri aukeratu zuten, tartean neu. Proba batzuk egin ondoren fitxatu ninduten"

Atzekaldean, liberoaren aurretik, jokatzen du eta 7 gol sartu ditu aurten: "falta jaurtiketak neuke giten ditui", esan digu Gotzonek. Egunen baten Andrinua eta Alkorta bezalako izatea gustatuko litzaioke. Luke eta Valvede ere oso gustoko ditu.

Kanteratik...

Asier Garitano, Agustin Aranzabal, Ibon Larrañaga, Gotzon Urzelai eta Ander Berraondo dira, gaur egun, Athletic edo Realeko gazte mailetan dabilzan bergarar bakarrak. Ez dira asko.

Sanse eta Bilbao Athleticen jokatu dutenak, gehiago izanik, ez dira hainbeste. Lehen mailako euskal talderen batetan inoiz aritu den bakarra, bestalde, Gaztelu da.

Reala eta Athletica, Gipuzkoa zein Bizkaiko jokalariek baliatzen dira, batez ere, euren taldeak osatzerakoan. Hau horrela izanik, C.D. Bergara bezalako kirol elkarteekin kontratuak sinatzen dituzte bilbotarrek eta donostiarrek interesatzen zaien jokalaritxuri bat edozein momentutan fitxatu ahal izateko.

Realak Agustin Aranzabal, Gazteluren semea, eraman zuenean, esaterako, 25.000 pezeta ordaindu zion C.D. Bergarari. Beste hainbeste gertatu zen Ander Berraondorekin. Baita Ibon Larrañaga Athleticen fitxatu zuenean. Ez ordea, Asier Garitano eta Gotzon Urzelairekin, hauek Bergarako elkartetik pasatu gabe zuzenean fitxatu bait zituzten bilbotarrek. Agustin, Ibon eta Ander mailaz igotzen doazen heinean C.D. Bergarako diru gehiago lortzen du eta Realak edo Athleticen aipatutako jokalaritxuri bat beste talde bati salduko balio traspasoaren %10a jasoko luke Bergarako elkartek.


**Beheko
Taberna**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ayastuy
Jantzidenda

Barrenkale 26
Tfnoa: 76 11 31
BERGARA



**ETXE-
-AUNDI**
Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

anezka
Udaberrirako oihalak
eta lenzeria
Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25 BERGARA

AGIRREBEÑA
Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria
Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29 BERGARA

FESA
Garraioak
Herrian eta Estatuan zehar
mota guztietako garraioak.
Tfnoa: 76 21 38 - 76 42 22 BERGARA

Nola egin dituzu selektibitateko azterketak?



Jose Mari Sanchez
17 urte

Ondo egin ditut, baina uste dut hau ez litzatekeela egin behar guretzako buru-hauste bat delako.



Blanca Lasheras
17 urte

Uste dut ondo egin dudala, ez da zaila izan. Testu komentarioa egiterakoan, euskarazko gaiak gaztelerazkoak baino errazagoak izan dira.



Almudena Romero
19 urte

Batzuk ondo eta beste batzuk gaizki. Filosofiako azterketa ondo egin dut ikasitako gaia tokatu zaidalako. Komentarioa izan da zailena.




Gotzon Arzelus
18 urte

Nahiko zailak iruditu zaizkit, ez estudiatu gabe etorri naizelako, egun berean azterketa asko egin ditugulako baizik. Biharkoa, oraindik zailagoa izango da.

MABER GIMNASIA-ETXEA

Kulturismoa
Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa
Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak
Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak
URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!

Zuzendaritza: **MARTIN BERROYA EGAÑA**
(Euskadiko kulturismo txapelduna)



Egun tristeak

Bada gero patu txarra neure herriko astekarirako sarre-horrelako titulu beltzez egin beharra. Zer egingo diogu ba! Horrelaxe kakaztu dizkigute inguruak gure politikoei. Hemen ustel usaina hartzen ez duenak usaimena konponzeko botikaren bat hartu beharra dauka.

Horixe da sentsazioerik sendoena, ustelkeriarena. Herri-rik herri, udaletxerik udaletxe, tratularien joko lotsagaldua. Herritarren zerbitzurik hobereana segurtatzeko, gu hobekien gobernatzeko omen dira tratu horiek. Ez dakit ipuin hori sinestu duenik geldituko den, ikusiak ikusi eta gero. Hain gelditu da nabarmen ideologia oso prezio merkean saltzen dela. Botere egarria hain gelditu da bistan! Adarra bapo jotzen diguten inpresioa ere ez da txikia.

Tristeia bai, baina harritzekoa ez. Oraingoan larru gorritan gelditu direnak ere ez lirateke gehiegi harritu behar, hemen lapur izateko okasioa besterik ez baita falta izaten. Sistemaren joku erregeletan bertan itsatsia baitago tratu itsusienetarako bidea. Tristeia hau da: herritarrek botua ematen dutenean, botuarekin batera gero horrekin hautatuek nahi duten guztia egiteko baimena ere ematen dutela. Politiko bezala aurkezten direnei gero tratulari bihurtzeko, botuen salerosle bihurtzeko, herritarrez ahazteko eta azokan negoziokoak egiteko baimena geuk ematen diegula. Geuk eskuratzen diegu gero geuk engainatzeko armak. Kontua da, oraingo honetan inoiz baino lotsa gutxiagoz jokatu dutela tratulariek eta kiratsa sufriezina goa izan dela. Bada garaia hain inuxente jarraitu behar dugun galdezten hasteko.

Eusebio Osa



Berriz ostikoka

Komunikabideak "Pacto contra natura" deitutakoan aldeko eta kontrako adierazpenez beteta ageri zaizkigu azken egun hauetan.

Benetako arazoa politikan naturala zer den jakitea da, izan ere politikak historian zehar zerbait izan bada ideologiak kontrakoak direnen arteko akordioak eta anai direnen arteko burrukak izan ditu.

Dagoeneko demokrazia errepresentatiboko partidu sistemak garbi utzi du ezinezko zaiola bere botuemaileak leialtasunez ordezkatzeko eta zokoratua duela agintari eta herritarren artean egon beharko lukeen komunikazioa. Euskal herritarren artean egon beharko lukeen komunikazioa. Euskal mapa politikoak gaur egun bizi dituen liska-rrak alde batera utzita ere, botuaren eta gizon-emakume publikoen ordezkartzaren balioa kolokan jarria du hauteskunder huteskunde indartsuago ageri den joera batek: abstentzioa haunditzeak. Zenbait adituren eritziz, hori gizartearen heldutasun politikoaren ezaugarri da, baina gehientsuenen eritziz guztiz bestelako esanahia du: abstentzioak influentzia trafikoa, transfugismoa, eta antzeko azpi-jokoak ebitatzerik lortu ez duen sistemarekiko etsipena adierazten du, abstentzioak siglen atzetik benetan zer interes defendatzen den jakiteko alderdiek zer diru-iturri duten argitzeko, bideak jarri ez dituen sistema honekin konfidantza guztia galdu izana adierazten du.

Zeharkako demokraziak eta alderdien sistemak bere moralik-ezaren froga ematen digute eguneroko, baina moral-gabekeria hori gaur egungo gizarte modernoetan, behar gorrien garaia igaro dituzten gizarte modernoetan, ageri den moralik-ezaren ispilu baino ez da.

Juan A. Migura

BERGARA 76 32 02

ELGOIBAR 74 02 36

ANTZUOLA 78 70 30

THE KENSINGTON SCHOOLS OF ENGLISH

Udako ikastaroak. Izen emateko epea zabalik.

Baldintza ezin hobekak 1991-92 ikasturterako.



Gipuzkoako Hizkuntz Ikastegien Elkarteak.



CAMBRIDGE Unibertsitateko P.E.T. azterketen antolatzaileak.



**LASA
JATETXEA**

Bkurutzeta 36,

Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29 BERGARA





18. Zer multa dagokio zirkulazloko lege-hauste edo infrazio bakoltzari?

Trafiko Legeak hiru mailatan banatzen ditu lege-hausteak eta maila bakoitzeko zigorrak ematen ditu.

Hiru maila hauek dira:

- Lege-hauste arina: 15.000 pzta.rarteko zigorra.

- Lege-hauste arinak larritzat jotzen ez direnak dira.

- Lege-hauste larria: 15.000pzta.tik 50.000pzta.ra.

Legehauste larritzat jotzen dira ardura gabe konduzitzea, istripuetan laguntza ez ematea, txoferraren gor-

putz edo buru ahalbideak a-hultzten dituztenak hartuta ibiltzea, legeak ezarritakoa baino ordu gehiago jarraian konduzitzea, abiada gehiegiz ibiltzea, aurreratu ezin den tokian aurreratzea, legeak agindutako dokumentazio edo matrikula ez eramatea, ko-txeak baldintza tekniko ego-kiak ez betetzea, ikusgarritasun onik ez denean argirik gabe ibiltzea, kontrako nora-bidean ibiltzea, lehiaketa edo lasterketan aritzea, etab.

- Lege-hauste oso larria: 50.000 pzta.tik 100.000 pzta.ra.

Lege hauste larriak direla esan ditugun horiek oso la-

rritzat jotzen dira edozein ar-razoigatik (trafiko haundia egotearren, bidea egoera txarrean egotearren, eguraldi txarra edo ikusgarritasun gutxi izatearren, edo antzeko-engatik) arriskua haunditu e-giten denean.

Azkenengo bi kasuetan karneta ere kendu liteke 3 hilabeterako.

Bestalde, esan beharra dago udal bakoitzak berak graduatzen dituela zigor horiek herriak dituen trafiko ar-razoak, populazioa, etab. kontutan hartuta.

(Informazioa: KIUB)

19. Entzun dut ur zikinrentzako depositoak, "pozo negro" delitzen direnak, egiteko laguntza ematen zalela baserritarrei. Zela dago kontu hori?

Arrazoi duzu. Oso baserri gutxitan dituzte ur zikinak behar bezalako baldintzatan jarrita eta egoera hori hobetze aldera, Gipuzkoako Diputa-zioak, egin beharrezko obrak egiteko, diru laguntzak ema-

ten ditu.

Diru-laguntzak eskatzeko epea hil honen 30era artekoa da eta obra urriaren 15erako amaitu behar da.

Diputazioak obraren %50 eko subentzioa ematen du, topea 150.000 pzta. izanik.

Horretaz aparte, badago baserritarrentzat interesgarria izan daitekeen beste la-guntzabide bat ere: fatxadak zuritzeko ematen dena. Ho-rretarako 50.000 pzta. ematen dira. Aurreko kasuan bezala, eskaria hil honen 30a aurretik egin behar da baina pintaketa irailaren 30a aurretik egin behar da.

Bai baterako eta bai bes-terako eskaera Udaletxeko bulegoetan aurkeztu behar dira. Bertan esango zaizu o-brak nolako baldintzak bete behar dituen ere eta dirula-guntzak lortzeko egin beha-rreko tramitazio guztia ere udalak egingo dizu.

Badakizu, edozein zalan-tza baduzu etorri eta azalduko dizugu. Horretarako gaituzu.


(Informazioa: Mendi, Pista eta Lorategietako zerbitzua)



VID-ART

Bidriera artistikoak

Belanbide z/g. BERGARA



BIDRIERAK - MURALAK - ISPILUAK
KRISTAL BISELATUZKO ATEAK - etab.

**BIDRIERA ARTISTIKOEN
1.ERAKUSKETA IRAUNKORRA**

FABRIKAKO PREZIOAK DITUGU

Erakusketa:
Astelehenetik Ostiralera, 11 - 3 eta 17 - 20
Larunbatetan 11 - 3

**Azal eiguazu zure ideia
VID-ARTEk egingo dizu.**

Enkarguak eta abisuak:
Tfnoa: 76 23 30 - 76 41 54
Fax: 76 41 54 (Bulego orduetan)
9 - 14 eta 16 - 20


□ **Etorriko haiz nirekin?**

Ez da ez amodiozko proposamen bat honako hau, hainbat urtetan Bergarako Institutuan eta UNEDen euskarazko klaseak ematen aritu zen Mikel Hernandezek kaleratu berri duen nobelaren izenburua baizik. Gasteizen jaiotako 32 urteko elgoibartar honek bi narrazio liburu publikatuak zituen orainarte, Panpinen erreinua (1983) eta Ispiluak (1985). Oraingo honetan, Mikelek unibertsitate irakasle batek bizi izan duen amets-gaiztoa kontatzen digu eta, liburuarekin batera, berak landutako musikamaketa eskuratzeko posibilitatea duzu azkar ibiliz gero. Liburua erosten duten lehen 500 pertsonak zorte hori izango dute.



□ **Luisen agurra**

Hogei urtetan egunero korrikan egin ondoren, Luis Fernandezek konpetizio ofizialetik erretiratzea erabaki du. 31 urterekin, jadanik motibaziorik ez duela eta beste gauza batzuk egiteko denbora falta zaiola dio Luisek. Orain hiru aste izan zen klubaren arteko Euskadiko Txapelketan korritu zuen Luisek azken aldiz; agur modura, Luisek garaipena lortu zuen 3000m. obstakuluetan Arrasate Kirolak taldearentzat.




□ **Selektibitatea**

Asteazkenean eta ostegunean Institutuko ikasleek hain beldurgarria den selektibitateko examina egin behar izan zuten Bergarako Kiroldegian. Guztira, Institututik 78 ikasle aurkeztu ahal izan dira ekaineko konbokatoriara eta Arrasate, Eibar eta Oñatitik ere ikasle mordo bat hurbildu zitzaigun. Ea txuleterorik ikusten duzuen argazkian...



Zertan dihardute ba?

IRAUNDI S.A.



19 urte rodamenduak egiten diharduen enpresa hau Hannoverren (Alemania) bi urtetik behin egiten den erakusketan izan genuen. San Juango enpresa honek urte bukaeran Pariseko Azoka parte hartzeko asmoa dauka.

KARLOS BALEZTENA



Igandean Lekeition jokatu zen Euskadiko Triatloi Zirkuituko lehenengo proban bostgarren postuan sailkatu zen. 27 urteko antzuolar honek Atletiko San Sebastian taldearekin korritzen du eta iaz ere txapelketa bikaina burutu zuen.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

ETXAGI

JATETXEA

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8 Tfnoa: 76 53 12 BERGARA

Hau dok barreguria

Aberats berri bat joaten da dendara eta traje karuenak erakusteko eskatzen dau. Karuena ekartzen dotza saltzaileak eta esaten dotza aberatsak:

- Ezta traje txarra, baiña karuagorik eztaukazu?

- Etxoizu puxkat -kontestau zotsan saltzailiak -ugazabari preguntakotsat ia karutu leikien.

Aspaldi, Aixkoi-ko Braulio marinan soldau zeuala, Inghaterrako Victoria erregina hil zan. Ohizko honoriak egittera Espafiako gobiernuak gerrako barku bat bialdu eban eta bertan Braulio. Itsasso txarra ero Kantabrian, eta hiletak pasau eta handik astebetara aillegatu zan barkuoi Inghaterrara.

Brauliok hau bere lagunartian kontau ebanian esan eban batek:

- Haura be izango zuan barku zarren bat?

- Zarra haura? Bai zera, banastatxuan tamainoko "troniluak" jauzkan eta.



Urolako makinistiak laguna ikusten dau trenbideertzian tapa-tapa.

- Hi, benga igo! -makinistiak tren geldittuta.

- Ez, gaur ez, gaur presa diat.

Behin sartu zan Eibarko ferreterixa fabrika hasi barrixa zan gazte bat eta hoge kilometroko barautza (broka) eskatu zeban hoge milimetrokua eskatu biharrian.

- Zer, hire ugazabak Eibarretik Durangora tunela ei biha jok, ala?

J. M. Elexpuru

Ehuna zela egiten zan


Etxian eitten zan arixa: kerrua irun esaten jakon. Korruan ipiñi, sartu gerrixan da ardatzakin arilddu, matazak eifñ, da gero tejerua hor zeuan, Osintxun eitten zan zuritzeko. Jesus.

Da lifñua be etxian hartzen zan. Lifñuak loria ederra eukitzen dau, anillan kolorekua, dana berdin berdiña, ustez itxasua dala.

Lifñua erein eitten zan beste edozein hazi bezelaxe. Linazixa oindio botikan egongo da. Lifñazixa enplastuak eitteko ta hartzen zan lehen. Ta lifñazixa erein eta lastua bezalaxe etara eitten zan gafiñera, ebagi ez. Sustarra txiki txikixa eukitzen dau lifñuak, hutxa, da berdin berdiña. Gero ba sorta txiki batzuk eitten zien da gero harek sortak lotu beran bedarrakin da igartzen eukitzen zien kanpuan, zelaixan zabaldua.

Gero handik batu, labian berotu, ta tragau; trangia esaten jakon, hala miñña barrura sartzen jakon zer bat. Labian berotu eta kaskaria kentzen jakon.


Gero harekin arixa eitten zan ardatzian; orduan erronda galantak eitten zien. Negu guztia lifñua iruten, irun esaten jakon, da juntau andra mordua ta gero gabian errondia. Errondia ba, etortzen zien inguruetako mutillak eta han andrakumiak egoten zien gorutan egonda, arixa eitten egonda, eta "Abarketa zar kanta" esaten jakon.



Anizeta Agirre, 1888ko apirilaren 17an Osintxuko Laudatz baserian jaloa. 103 urte.

Juan Martin Elexpuru

SANTOS - IRRATI-TB



TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako altzariak
Argiztapenak

Mahasterreka 2,

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ARRANO



TABERNA

Kruz Gallastegi

BERGARA



Zabaletak susto ederra

Suerte txarra izan zuen Aitor Zabaletak joan den larunbatean Mallorcan korritutako Espainiako Txapelketaren lasterketan. Aitorrek istripua izan zuen karrera aurreko entrenamenduetan; kotxea probatzen ari zela, aurreko eskumako muturra bide bazterreko hezien kontra joan eta, tronpoa egin ondoren, burdin bat kotxe erdiraino sartu zitzaion. Ospitalean ingresaturik egon eta, igande arratsaldean hobeto sentitzen zenez Bergarara itzuli zen. Orain, Aitorren ekipoak kotxea konpontzeari ekin beharko dio hilabete barru Ciudad Realen jokatu den proban parte hartu eta lidergoari eutsi nahi badio.



Osa garaile San Antonion

Laxy taldeko Unai Osa itziartarra izan genuen San Antonioko txirrindulari lasterketako irabazlea joan den igandean. Lasterketan parte hartu zuten bigarren urteko 120 kadete inguruk karrera benetan polita burutu zuten.

Osak, helmugan, 48" atera zizkion Joseba Garitanori (Aloña Mendi) eta 54" Sergio Lopezi (Usurbil). Aipatu erorketa asko izan zirela karrera osoan zehar.



Eskalada astea

Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol mendizale taldeak antolatutako, datorren larunbatean hilak 29, Kirol Eskaladako Euskadiko II. Txapelketa jokatu da Bergaran. Hori dela eta, antolatzaileek eskaldaren inguruan aste beteko egitaraua prestatu nahi izan dute; astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 7etara, nahi duten guztiek aukera izango dute eskalada saioak rokodromoan egiteko Jon Lazkanoren laguntzaz. Aste guztian zehar ere eskaladako materiale eta argazkien erakusketa izango da Kultur Etxean eta, era berean, UNEDeko aretoan, zortzi t'erdietan hasita, diapositiba emanaldiak izango dira astelehenetik ostegunera.

□ Olinpiadak

Aurten ere Bergarako Olinpiada Batzordeak (BOB) olinpiada herrikoiak antolatzeari ekin dio. Uztailearen 1etik 20ra bitartean burutuko dira txapelketa desberdinak: Futbito, Saskibaloia, Herri kirolak, Waterpolo, mahai jokuak, ... etab. luze bat. Talde mixtoak osatzea gomendatzen dute antolatzaileek eta izena emateko epea hilaren 21era arte egongo da zabalik herriko tabernetan.

□ Pilota

Gaur zazpi t'erdietan jokatu dira Osintxun Deba Arroa Pilota Txapelketaren final erdiak. Infantiletan, Zabaleta-Muruamendiaraz bikote bergararrak Muguruza-Calle plaentxiarrek osatutakoa 13 tantuko diferentziaz irabazi beharko du finalera heltzeko. Seniorretan berriz, Oregi II.k eta Aldaik elgoibartarren aurka 13 tantuko aldeaz galtzen badute ere, finalera pasako dira.

Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan
Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

FS
oto sistema

Tfnoa: 76 00 50

ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Tfnoa: 76 00 50




Datorren domekan egingo den Haurren Egunak aspalditxo bota zituen lehenengo zuztarrak. 1935ekoa edo 1936koa den argazki hau dugu horren lekuko. Batzokiko dantza taldea ageri zaigu bertan, Donostiako Euskal Jaien egunean. Erretratua Kontxan aterata dago. Hona hemen nortzuk dauden bertan, ezkerretik eskumara, behetik hasita:

Lehenengo ilaran: Juanita Etxeberria (Pantaleon Oregiren emaztea), ezezaguna, Juanita Uncilla, Purita Barrena, Arantxi Peña, Miren Linazisoro, Maritxu (Santa Marinako sakristauanekua), Elisabete Gallastegi (Eguizabalekoa) eta Edurne Aranzabal.

Bigarren ilaran: Xole Jauregi (Yon Bilbaoren ama), Garbiñe Marko, ezezaguna, M. Victoria Arizmendi, Tere Mugika, M. Angelita Hernando, Elena Loidi, Felipa Mugika, Mirentxu Oregi eta Paulita.

Hirugarren ilaran (zaharrenak): M. Dolores Ortiz de Zarate, Antonia Raimon, Elisabete Arana, Margarita Idarreta, Mirentxu Azkargorta, Miren Osinaga, Julia Jauregi, Elisabete Agirrezabal, Karmelo Otaola (irakaslea), Itziar Mugika, Lide Mugika, M. Teresa Etxeberria (Juanitaren ahizpa), Anita Alkorta, Juli Narbaiza, Maritxu Arregi, Margarita Arregi, Julia Osinalde, eta atzean irakaslearen anaia Ismael Otaola.
Argaztitan falta da beste irakaslea: Luis Oñate.

Estepan Plazaola



BERGARA BOLTSAK

- Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- Denetarikoa konfekzio industriala
- Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

Oharra:

Orrialde honetan
iragarkiak ez dira
ordaintzen.

**ETXEBIZITZA**

• Etxe bat behar dut alokairuan. 30.000 pzta. ordainduko nituzke. Tfnoa: 764648.

• Pisu bat alokatzen dut Martokuan. 761460

• Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 20etatik aurrera 764252 Tfno.ra.

• Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.

• Pisua alkitatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.

• Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.

• Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.

• Baserri bat hartuko

genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.

• Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

LANA

• Eraikuntza materialen biltegi baterako errepresentantea behar da. Deitu lan orduetan: 760141.

• Neska euskaldun bat behar da etxeko lanetarako. Mesedez fundamentoduna. 760180 Tfno.a.

DENETARIK

• Funda marroidun be-taurreko graduatuak galdu dira San Martin Enparan-

tzan. Aurkitu dituenak deitu mesedez: 762485era.

• Mutiko baten txaketa urdin bat, (10 tailakoa), aurkitu genuen, aurreko zapatuan hilak 15, Irizarko Bodegoiaren inguruan. Deitu 761781 tfno.ra.

SALDU-EROSI

• Soinu bat salgai. Deitu 764195era.

• 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. 76-1201.

• Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.

• Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera,

30 jokurekin eta oso merke. Tfnoa: 908171883 (Kotxekoa)

• Renault 6 edo antzerakoa erosiko litzateke. Deitu 762386 tfno.ra gaueko 10.00etatik aurrera.

• Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.

• Reflecta Diamator AF diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.

• Hiru urte dituen Mobyette bat salgai. Prezio ona. 763276.

• Kanping-karro bat eta osagarriak salgai. Deitu 763647 galdetu Arantzazugatik.

Hildakoak

Victoria Olabarria Gisasola

79urte, ekainak 14an

Juanito Urzelai Osa

84 urte, ekainak 13an

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

Mugica

GOZOTEGIA

Artekale 3 Tfnoa: 76 51 65

BERGARA

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

egizabal oinetakoak
boltsak


Elisabete

gizonezkoen jantzi denda

Bidekurutzeta 13

Tfnoa: 76 12 28

BERGARA



BUSTI ZAITEZ
uda honetan

BERGARA 
UDAL  EUSKALTEGIA
BARRENKALE, 33
TEL. 76 44 53

UDA IKASTARO TRINKOAK

- ✓ **Iraupena:** Uztailak 1etik 26ra bitartean.
- ✓ **Matrikulaldia:** Ekainaren 28rarte.
- ✓ **Prezioa:** 5.500 pzta. (bekatze sistema izango da)
- ✓ **Izenematea:** Euskaltegian .
Barrenkale 33, 2.

Goizez: 8,30-12,30
Arratsaldez: 14,30-18,30
Tfnoa: 76 44 53